

Teresa Jesusena

(1515-1582)

Sta. Teresa de Jesús (de Avila), cuyo V Centenario acabamos de celebrar, es una de las figuras más preclaras del santoral cristiano. En la multitud de Santos es conveniente evocar algunos de personalidad más señalada, ya por el modelo de santidad que ofrecen, ya por su incidencia en la Iglesia y la sociedad. Sta. Teresa es un caso de éstos.

Santu aitortu guztiak Santu izan dira, Elizak hala ezagututa; baina ez dira denak bikaintasun eta esanahi berekoak, beren izaera pertsonalagatik ez ezik Elizan eta gizartean irabazitako oihartzunagatik ere. Kasu batzuetan, kristau herrian utzi duten arrastoa sakonagoa izan da, beren jarraitzaile eta miresleen bidez segurtatua. Sta. Teresa da horrelako santa bat.

Teresaren bizialdia

Moja zelarik hartutako izena da "Teresa Jesusena", izan ere familiatik Teresa de Cepeda y Ahumada baitzen. Ez da erabat segurua Teresaren jaioterra Avila hiriburua izan zenik, eta ondoko herritxo batean, Gotarrenduran, jaiotze ote zen ustea ere indarrean dago.

Umetan eta nerabe zela, gogo kezkatia zuen Teresak: alde batetik, irudimenezko kontakizun eta zaldun-historiak maite eta irakurri zituen, eta bestetik, mairuen herrietan martiri izateko etxetik ihes egin ere egin zuen. Irudimen azkarreko nexa zen, nonbait.

Gazte zela, 1534an ekin zion bizitza erlijiosoari, Avilako "Encarnación" komentuan moja sartuta. Horrek ez du esan nahi, ordea, erlijiotasun asebeteari ekiteko asmo garbirik zuenik. Alderantziz epelkeriatan galdurik ibili zen, urtetan. Esan beharra dago, komentu hartako mojak Karmel zaharrekoak zirela, hau da, XIII. mendean sortutako Ordenakoak.

Aldakuntzak ondoko bi hamarkadetan etorri ziren, pausoz pauso, erlijiozko irakurgaiak eta bizipen mistikoak tartean zirela (1554-1560): irakurgaien artean, F. Osuna frantziskotarraren *Abecedario espirital* eta San Agustinen *Aitorkizunak* idazkiek eragin azkarra izan omen zuten Teresarengan, berak aitortu zuenez.

Era berean, elizgizon santu eta teologo jakitunekin harremanetan bizi izan zen Sta. Teresa, premiazkoa sentitu baitzuen bere bizitza espiritual hain bereziaz eta zituen esperientzia mistikoez gidari onak aurkitzea. Teologoaren artean bilatu zituen bere aitoren tzuleak, batez ere jesulagun eta domingotarran; D. Báñez domingotarra, jatorriz arrasatearra, izan zen horietako bat.

Harritzekoa da nola gerora Elizak Santutzat emango dituen hainbat elizgizon Teresak ondoan izan zituen: Pedro Alkantarakoa (†1563), Frantzisko Borjakoa (†1572), Luis Beltran (†1581) edo Donibane Gurutzekoa (†1591), adibidez. Bazekien ongi, XVI. mendeko Gaztelan espiritualtasun berrietuek nolako arriskuak izan zitzaizketen (Inkiszioa eta garaiako politika-erlijiosoak indarrean zeudela, Kontrarreforma deituaren bihotz-bihotzean, alegia). 1560an espiritualtasunari osorik heltzeko zinitza egin zuen Teresak.



Mistikari, fundatzaile, idazle

Teresaren soslaia eta herentzia nolakoak izan diren laburtzea ez da batere erraza: aberatsa izan zen bere emakume-nortasunean, guztiz buru argia, harremanetarako iaotasun itzela zuena, ingurukoentzat gidaria, bere baitan bizipen espiritual sakonak izandakoa, bizi ez ezik berorien azalpen idatziak eman zituen, Ordena berritu baten sortzailea, gobernu-arduradun ernaia, etorri lasterreko idazlea, etab. Inoiz gutxitan bildu dira emakume eliztar bakar berarengan hainbeste eta halako balio eta zerbitzu-moduak.

Teresaren historia mistiko pertsonala eta idatziak munduko erlijio guztietako historia mistikoan goreneko lekua irabazita daukate, Kristautasunetik kanpo ere. Donibane Gurtzekoarekin batera aipatu izan da Sta. Teresa Jesusena. Bikote kasik banaezina dira biak espiritualitatearen historian.

Komentuan egon, egoten zekiena zen Teresa; baina, aldi berean, ibiltari eta ekintzaile ausarta: ikustekoa da garaiko bide-sare latzetan zenbat ibili behar izan zuen, eta zenbat ibili zen, uda eta negu, Ordena zaharraren berrikuntza sustatzen zuela.

Avilan bertan hasi zuen Karmeldar Oinutsen Erreforma berria, hain zuzen "Encarnación" hartatik hiri berean San Jose komentuko erreformari heldu zionean (1562). Ondoren beste hainbat Etxe erreformatu ireki ahal zituen, horrek guztiak zekartzan gizarteko harreman, buruhauste ekonomiko eta agintari-zereginekin: Medina (1567), Malagón

(1568), Valladolid (1568), Alba de Tormes (1571), etab. Hauek mojen komentuak izan ziren; baina fraide karmeldar berrien komentuak ere erreformatu ahal izan zituen, edo berriak sortu.

Ugaria eta baliotsua izan zen Sta. Teresaren idatz-lanketa; gaztelaniazko Literaturaren Historietara pasatu da. Mota ezberdineko gaiak izan zituen: historiaz, beraren *Bizitza* dago eta *Fundazioak* deritzana; espiritualitateaz *Barne-Gaztelua*, *Meditazioak*, *Olerkiak* dauzkagu. Elizak 1622an kanonizatu zuen Teresa, eta Eliz Doktore da, emakumetan lehenengoa (1970).

Jatorrizko Ordenaren barruan 1588an Kongregazio bihurtu zen karmeldar hauena (1588), eta Elizak 1593an Ordena beregaina aitortu zuen. Munduan eta Euskal Herrian, agerikoa izan da moja karmeldar kontenplarien garapena. Azpimarratzekoa da XX. mendean euskal fraide karmeldarrek burutu duten Misiolana, Probintzia Erlijioso eta Diozesi berriak sortuz (Indian, Amerika).

Fraide eta moja karmeldar oinutsak ongi errotuak egon dira Euskal Herrian. Sta. Teresak berak, bizirik zela, sortu nahi izan zuen Iruñeko komentua, hura hil eta berehala eraiki zena (1583). "Nafarroako San Joakin Probintzia" (1706) izan da Euskal Herriko karmeldarren Barrutia. Irakurlearen eskueran dago orain Probintzia honen Historia, J. Urkiza, A. Untzuetak eta A. Fz. Mendiolak eman digutena.

Joseba Intxausti